

Topalekua

49zk. 2009ko urtarrila

enero 2009 - n.º 49

1 eta 3 orr.: UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkura aztertzen ari da I. Deialdiko osagarrien esleipenaren aurka jarritako errekurtsoen egoera
3 orr.: II Deialdia Ehaoean

2 orr.: Gobernua eta Autonomia Erkidegoak Zientzia eta Teknologiari buruzko lege berriaren zirriborroa aztertzen ari dira
4 orr.: Euskadi, I+G+B esparruan eskuduntzak dituen lehenengo erkidegoa

692 errekurtsu eta osagarritzko informazioko 457 eskaera jaso dira

UPV/EHUko GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA AZTERTZEN ARI DA I. DEIALDIKO OSAGARRIEN ESLEIPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOEN EGOERA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura Bilbon antolatu zen abenduaren 11n eta sakon aztertu zuen unibertsitateko irakasleek aurkeztutako 692 errekurtsoen izapideen egoera. Esan bezala, irakasleek aipatutako errekurtsuak aurkeztu zituzten Kontseiluan bertan, ordainketa-osagarri gehigarrien esleipenaren aurka, 2007ko urtarrilaren 26ko Deialdiari jarraiki. Horretaz gain, Kontseiluak izapidetu diren osagarritzko informazioaren 457 eskaerak ere aztertu zituen.



(3. orrietan jarraitzen du)



GOBERNUA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO LEGE BERRIAREN ZIRIBORROA AZTERTZEN ARI DIRA

Zientzia eta Teknologiako Kontseilu Nagusia (bertan Autonomia Erkidego guztiak ordezkaturik daude) abenduaren 9an bildu zen Ministerioaren egoitzan, Cristina Garmendia Zientzia eta Berrikuntza Saileko ministroaren lehendakari zapean, Zientzia eta Teknologiari buruzko Lege berriaren zirriborroaren aurrerapenak aztertzeko.

Aipatutako bileran, Cristina Garmendiak aipatu zuen “legeak honako hau barne hartuko duela: I+G publikoaren esparru barruko ikerketa ibilbideari buruzko definizioa, sektore publikoko ikertzaileen mugikortasuna eta ezagutza transferentziaren sustapena”.

Ministroak nabarmendu zuen Autonomia Erkidegoak Kontseilu Nagusian biltzeak “argi islatzen duela Zientzia eta Berrikuntza Ministroak I+G arloko politikako bateratutako agendari eman nahi dion bultzada”, “zientzia, teknologia eta enpresa sistemaren espiritu berritzaileak markatutako agenda bat”, alegia.

Ministroarekin batera honako hauek bildu ziren ere: José Manuel Fernández de Labastida Politika Zientifikoko eta Politikoko idazkari nagusia, Zientzia eta Teknologiari buruzko Lege berriaren garapenari buruzko informazioa emanez; Otilia Mó Ezagutzaren Programen eta Transferentziaren zuzendari nagusia, 2009. urteko Transferentzien eta Balorazioaren Zuzendari Planaren aurrerapenei buruzko informazioa emanez; eta Juan José

Moreno Planifikazio eta Koordinazioko zuzendari nagusia, I+G+b arloko Plan Nazionalaren 2009. urteko Lan Planari buruzko definizioa emanez.

Horietaz gain, Juan Tomás Hernani Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren (FECYT) zuzendari nagusia ere Kontseilu Nagusira bertaratu zen, eta aipatu zuen FECYT —2009ko Sorkuntza eta Berrikuntzaren Urtearen prestaketaren esparruan— berrikuntzaren eta sorkuntzaren irudi publikoa areagotzeko jarduerak antolatzen ari dela, aberastasun, garapen eta bizi-kalitatearen sortzaile gisa.

Zientzia eta Berrikuntza Saileko ministroak bilera aprobetxatu zuen Estatuko Administrazio Nagusiaren eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzak, kooperazioa eta koordinazioa eskatzeko, zientzia eta teknologiako politikaren definizioa, exekuzioa, jarraipena eta ebaluazioa garatzeko.

Halaber, azpimarratu zuen, uneko ekonomia egoeran, bere sailak “abagune hau aprobetxatu nahi duela gure herrialdea indarberritzeko eta, berrikuntzarekin, etorkizuneko gizarte eta ekonomia erronkei aurre egiteko prestatuagoa egoteko”. Kontseilu Nagusia Autonomia Erkidegoen aholkularitza eta partaidetza organo bat da, Zientzia eta Teknologia esparruko Ministerioen arteko Batzordearen barruan (CICYT). CICYT Espainiako Gobernuaren I+G+b arloko politikak planifikatzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko organoa da.

ESPAINIAKO UNIBERTSITATEKO KONTSEILUAREN USTEZ EEES UNIBERTSITATE SISTEMA HOBETZEKO AUKERA ONA DA

Espainiako Unibertsitateko Kontseilua abenduaren 4an bildu zen Estatuko Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Gunearen (EEES) garapena aztertzeko. Bere ustez, baterako gune bat eraikitzea (bertan, dagoeneko 46 herrialdek hartzen dute parte) “aukera ezin hobea da Espainiako eta hura osatzen duten unibertsitate bakoitzaren sistema hobetzeko”.

Orain arte, Unibertsitate Kontseiluan gradu titulu eskaeren 700 memoria inguru eta master titulu eskaeren 60 memoria izapidetu dira. Horrek, Kontseiluaren arabera, adierazten du “unibertsitate komunitateak, ikasleak, irakasleak eta administrazio eta zerbitzu-tak langileak buru-belarri lanean ari direla eskaera kopuru handia

prestatzen”. “Gogor lan egin behar den zeregin konplexua da eta bertan, unibertsitario ugari parte hartzen ari dira. Zalantzarik gabe, denon esker onak merezi dituzte, euren eskuzabaltasunarengatik, lanarengatik eta prozesu honi egindako ekarpen nabariarengatik”.

Bilera ondoren igorritako komunikatuan, Kontseiluak nabarmendu zuen ere ekimen europar hau “unibertsitate autonomia, ikaskuntza askatasuna, aukera berdinketa eta printzipio demokratikoen aldeko konpromiso sendo batetik sortu dela; eta horrek Unibertsitatea indarberritzen duela, sektore publiko gisa, eta Goi Mailako Hezkuntza orokortzearen alde egiten duela”.

UPV/EHUko GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA AZTERTZEN ARI DA I. DEIALDIKO OSAGARRIEN ESLEIPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOEN EGOERA

Los recursos presentados han sido estudiados en 9 Aurkeztutako errekurtsuak Kontseiluaren 9 Osoko Bilkuretan aurkeztu dira, 2008ko ekainaren 12tik orain arte. Laburbilduz, guztira, 275 errekurtsu atzera bota dira, izan ere, UNQUAL agentziari dagokio ebaluazioaren emaitzen desadostasun hori ebaztea, hau da, arlo horren eskumenak esleitutako agentzia. Beste 158 errekurtsori dagokionez, uztaillean izapideetarako epea eten egin zen, UNQUAL agentziak errekurtsuak ebaztearen zain geldituz. 36 errekurtsotan, Gobernu Kontseiluari esleipen proposamen berri eskatu zaizkio, UNQUAL agentziaren ebaluazioari jarraiki eta beste 14tan aipatutako Agentziari interesatuek salatutako akatsak argitzeko eskatu zaio. Beraz, 183 errekurtsu ebazteko gelditzen dira. Osoko Bilkurari jakinarazi zitzaion ere, Gizarte Kontseiluak oraindik ez dituela jaso irakasleek UNQUAL agentziaren aurrean ezarritako errekurtsuen ebazpenak.

Gogoratu behar da aipatutako errekurtsuak osagarri gehigarrien esleipenaren I. Deialdiaren aurka, aurkeztu direla. UPV/EHUko irakaskuntza eta ikerketa arloko (PDI) langile guztiek, bai funtzionarioak eta bai

administrazio langileak eta laboralak, aipatutako osagarri gehigarri horiek jasotzeko eskubidea dute, baldin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko 209/2006 Dekretuak ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte eta UNQUAL agentziak (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco) egindako ebaluazioa gaingitu badute. Aipatutakoaren arabera, eta Topalekua honen beraren aurreko alean adierazi zen bezala, urriaren 22an, Gizarte Kontseiluak II. Deialdia ontzat eman zuen, 2007ko urtarrilaren 26ko I. Deialdiari zegozkion osagarriak jaso ezin zituzten langileek euren irakaskuntza eta ikerketa arloko merituen ebaluazioa eskatu ahal izateko.

Bestalde, Osoko Bilkurak ontzat eman zuen ere Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak BERC MATEMÁTICA APLICADA (BASQUE CENTER FOR APPLIED) zentroko eta Fundación MINTZCLA kide fundatzaile gisa parte hartu ahal izatea, bietan, Errektorea edo eskuordetutako pertsona Unibertsitateko ordezkari izendatuz.



II. DEIALDIA EHAOEAN

242 zenbakidun EHAOk abenduaren 18an 08-10-22ko Gizarte Kontseiluaren akordioa argitaratu zuen. Beraren bidez ontzat eman zen UPV/EHUko ikaskuntza eta ikerketa langileen merituetako ebaluazioa eta ordainketa-osagarri gehigarrietako esleipena eskatzeko II. Deialdia. Eskerak Gobernu Kontseiluan aurkeztu beharko dira. Epea bi hilekoa da EHAOean argitaratzen den egunetik aurrera.

(2. orritik dator)

Prozesua abian jarri ondoren, unibertsitate organoaren ustez, “gure Unibertsitateek eskaintzen dituzten titulazioak eguneratuko dira, ikasleek euren irakaskuntzaren beraren kontrolean, planifikazioan eta jarraipenean modu aktiboagoan parte hartzearen alde eginez”. EEES guneak ezagutzaren arlo guztiak hartzen ditu barne, zehazki, Europako Unibertsitatearen funtsa eratzen dutenak.

Aitorpenean, halaber, nabarmentzen dute unibertsitatearen dimentsio sozialak eta humanistikoak “baterako gune berria eraikitzeko prozesuan parte hartzen dutela, eta denen eskura dagoen kalitate goreneko goi mailako hezkuntzarekin konpromiso bat hartzen dutela”. Horretarako, “baldintza egokien ezarpenean aurrera egiten jarraitu behar da, ikasleek euren ikasketak gizarte eta ekonomia izaerako trabarik eta mugarik gabe osatu ahal izateko. Beken eta laguntzen politika sustatzen

jarraitu behar da EEES gunearen barneko mugikortasuna sustatzeko”.

Azkenik, Kontseiluaren kideek azpimarratu zuten “elkarriketak, tolerantziak eta askotariko iritziekiko errespetuak Unibertsitateko funtsean bertan parte hartzen dutela eta Unibertsitateko ordezkarien organoak eta gobernua gune egokia, zabala eta demokratikoa direla unibertsitate komunitatearen nahi kolektiboa adierazteko”. Horregatik, “indarkeriako jardueri eta, legearen arabera, unibertsitate erakundearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismo demokratikoak alde batera utzi nahi dituztenen jarrerei uko egiten diegu”.

Azkenik, bileran bertan, Kontseiluak irmotasunez gaitzetsi zuen Azpeitian gertatutako Ignacio Uria Mendizabal enpresaburuaren hilketa eta adierazi zuen unibertsitate organoaren senitartekoenganako eta lagunenganako solidaritatea.

GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK UPV/EHU ETA OSAKIDETZA ARTEKO HITZARMENAREN ALDEKO TXOSTENA EGIN DU

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak (Bilbon, azaroaren 12an antolatuta), ontzat eman zuen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena, unibertsitate ikerketarako eta irakaskuntzarako, osasun instalazioak erabiltzeko. Hala ere, eskatu zuen unibertsitateko aurrekontuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak UPV/EHUri eskuordetutako funtsak zehatz mehatz adierazteko.

Osoko Bilkurak Hitzarmena ontzat eman zuen, txosten bat aztertu ondoren. Bertan adierazi du, hitzarmenaren sinadura, arau espezifiko baten arabera araututako den Eusko Jaurlaritzako hezkuntza eta osasun arloko politikaren alderdi bat dela, Kontseilu Nagusiari esleitutako ekonomia izaerako eskuduntzei jarraiki. Hala ere, organo honek kontuan hartu ditzake aldeko txostena behar duten 16. klausulan eta 2. aldi baterako xedapenean aurreikusitako araututako zehatzak.

Bileran bertan, Osoko Bilkurak ehunka errekurtsio ebatzi zituen ere, irakasleek jarrita, merituen arabera

osagarrien esleipenaren aurka, irakaskuntza eta ikerketa esparruan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 209/2006 Dekretuak ezarrita. Horrek suposatzen zuen, aipatutako datan, aipatutako ordainketa osagarrietako lehen deialdiari zegozkion esleipenen aurka aurkeztutako 700 errekurtsioen %60 inguru.

Gogoratuko den bezala, UPV/EHUko irakaskuntza eta ikerketa (PDI) arloko langile guztiek osagarri gehigarriak jasotzeko eskubidea dute, bai funtzionarioak eta bai kontratatutako administrazio langileak eta laboralak, baldin eta Dekretuak zehaztutako baldintzak betetzen badituzte eta UNIKUALek burututako ebaluazioa gauditu badute (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco).

Azkenik, Kontseiluak hainbat aurrekontu aldaketa ere ontzat eman zuen, 105.000 eurotik gora eta beste hainbat baliozkotu ditu, ia 40.000 euro gehiagotan.

EUSKADI, I+G+b ESPARRUAN ESKUDUNTZAK DITUEN LEHENENGO ERKIDEGOA

Euskadi I+G+b esparruan eskuduntzak dituen lehenengo autonomia erkidegoa izango da, abenduaren 10ean, Idoia Zenarrutabeitia lehendakariordeak eta Elena Salgado Herri Administrazioetako ministroak transferentzia hau sinatu ondoren. Aipatutako transferentziaren urteko zenbatekoa 86,6 milioi euroetakoa da eta hura 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkor bilakatuko da.

Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak eskuduntza hau eskuordetzea erabaki zuten, hurrengo urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren onespeneran esparruan.

Elena Salgado ministroak nabarmendu zuen, bere ustez, transferentzia hau oso "berezia" dela, giza baliabideei eta materialei ez eragin arren, Gernikako Estatutuak Euskal Herriari, ikerketa zientifiko eta teknikoko arloan, emandako eskuduntza eskusiboa oinarritzat hartzen duelako.

Bestalde, Idoia Zenarrutabeitia lehendakariordeak azpimarratu zuen eskuduntza hau "lehenetsunezkoa eta premiazkoa" dela Euskal Herriarentzat, azken horrek "Europar Batasuneko batez bestekoaren antzeko eta Espainiako batez bestekotik gorako gastua duelako". "Zailtasunak eta desadostasunak gauditu ondoren —erantsi zuen—, eskuordetze honek argi islatu du, nahi politikoa existitzen denean, trabak alde batera uzten dituela eta akordioetarako iristeko bidea errazten duela".

Akordioaren amaierako testuak bi administrazioek aurretik defendatutako interpretazioak gauditzen ditu. Horiek akordioaren aurreko hilabeteetan eztabaidagai izan ziren, eskuduntzaren izaera eskusiboa espresuki adierazten zutelako, baina Konstituzioak Estatuari esleitutako eskuduntza orokorraren barruan, sustapen eta koordinazio

orokorraren esparruari zegokionez. Horrela, akordioak zera dio: "ikerketa zientifikoari eta teknikoari lotutako botereek administrazioen artean banatutako edo bildutako izaera dute".

Herri Administrazioetako ministroak onartu zuen Exekutiboak ez duela aurreikusi beste autonomia erkidegoek eskuduntza honen eskaerarekin bat egitea. "Eskuordetze honekin, Gobernuak, denbora eta era zuzenean, bete du presidentek Euskal Taldeari zin egindako konpromisoa, eskuduntza hau abenduaren 15a baino lehen eskuordetzeko zegokionez", adierazi zuen, amaitzeko, Herri Administrazioetako ministroak.

UPV/EHUko ERREKTORE BERRIA BERE KARGUAZ JABETUKO DA



Urtarrilaren 9an, Iñaki Goirizelaia UPV/EHUko errektore berria bere karguaz jabetuko da. Bere kandidatek abenduaren 4an antolatutako hauteskundeak irabazi zituen. Gogoratu zen bezala, Goirizelaia buru zuen plantxak Marisol Esteban buru zuenari irabazi zion. Guztira 5.416 boto garaile izan ziren, lehiakidearen 4.350 botoaren aurka, beraz, haztatutako botoen %52,25 ordezkatu zuen, %47,75 aurka.